

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

**Pultsulariek
postu
onenak lortu
dituzte**

Gipuzkoako
absolutoan lehen
postu ugari dituzte ▶ 4

ALEGIA ▶

**Haur Eskola
Franconin
jartzeko
«oztopoak»**

Fundazioak ezezkoa
eman dio ikusten den
leku bakarrari ▶ 5

IZASKUN ▶

**Zikiro jatea,
segalariak
eta
erronomia**

Bihar hasiko dira
jaiak; etzi izango dira
bertsolariak eta
dantzariak ▶ 6

ARESO ▶

**Ikasleek
antzerkia
eskaini dute
Sakanan**

Urdiainen izan ziren
atzo bere bi obra
antzezten ▶ 7

Moto eta auto zaharrek hartuko dute Tolosa asteburu osoan zehar

IKUSGAI ▶ Ferialekuan erakusketa
izango da; Lanbide Heziketako
hiru institutu ere izango dira

PROBA ▶ Atzo abiatu zen moto
proba gaur amaituko da, mila
kilometro egin ondoren ▶ 2



Non stop probako motozale batzuk atzo arratsaldean plaza Zaharrean. JOXEMI SAIZAR



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
→ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
→ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 9ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



Loatzo **MATRIKULAZIOA**
musika **04-05**
eskola **IKASTURTEA**

Musikaz gozatzeraz anima zaitez!

Epea: ekainak 1-7

Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondoren	

ESKAINITZA ZABALA:

musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 670265

IBILGAILU KLASIKOEN X. NAZIOARTEKO ERAKUSKETA ▶

Mila kilometroko moto probarekin abiatu da topaketa

Ibilgailu Klasikoaren X. Nazioarteko Erakusketaren «kalitatea» eta «erreferentzialtasuna» azpimarratu dute

LEIRE MONTES

Mila kilometroko moto probaren irteerak eman zion atzo hasiera Ibilgailu Klasikoaren X. Nazioarteko Erakusketari. Asteburuan, bai Ferialekuan bai herrian, era guztietako ekitaldiak egingo dituzte. Topaketaren «kalitatea eta erreferentzialtasuna» azpimarratu zituzten antolatzaileek eta laguntzaileek herenegun udaletxean eginiko agerraldian.

MOTO PROBA

09:00etan Plaza Zaharretik abiatu ziren atzo motorrak, eta gaur 10:00ak aldera iritsiko dira Ferialekura. Mila kilometroko *non stop* erregulartasun proba da, gerra aurreko motozentzat; «badago salbuespenik, 76 urteko gure laguna posgerako motor batekin ariko da», adierazi zuen Salba Zubizarreta probako koordinatzaileak. Hego Euskal Herriko lau hiri-buruak zeharkatuko ditu erregulartasun probak. «Inguruekin, paisaiekin eta jendearekin disfrutatzea da helburua».

ERAKUSKETA

Gaur eta bihar 150 erakusle elkartzeko dira Ferialekuan. «50 erakuslerekin hasi zen topaketa, eta egun jada 150 dira», azaldu zuen Jose Miguel Gomez Elosegi Garapen, Enplegu, Turismo eta Merkataritza zinegotziak. Autoen eta motoen erakusketa, eta pieza eta osagarrien merkaturia aurkitu ahal izango dira Ferialekuan. Bi egunotan 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

ROLLS ROYCE ETA INDIAN K. FEATHERWEIGH

Rolls Royce autoaren ehungarren urtemuga dela eta, modelo batzuk ikusgai izango dira Ferialekuan; besteak beste, 1937ko *Coupe de Ville* bat eta 1950ko *Silver Pray* bat. Bestalde, AEBetan 1916an egin zen Indian K. Featherweigh motoa ere izango da ikusgai; jabea nafarra da, eta motoa 1918an iritsi zen Iruñera.



Motoak jendaurrean ikusgai jarri zituzten abiatu aurretik. LEIRE MONTES



Ezker-eskuin: Zubizarreta, Irastorza, Gomez Elosegi, Izagirre eta Agirre, udaletxean egingako agerraldian. LEIRE MONTES

MOTO ERAKUSKETA

Bi denborako motorra duten motoen mende oso bateko atzerabegirako erakusketa izango da. 20. hamarkadatik hasita, hamarkada bakoitzeko motorik esanguratsuenak jarririko dituzte ikusgai.

AUTOMOZIO ERAKUSKETA

Gipuzkoako Goi Mailako Lanbide Heziketako hiru institutuk antolatu dute —Errenteria, Elgoibar eta Aretxabaleta—. Agustin Agirre zentroen ordezkariak ekimenaren garrantzia azpimarratu zuen: «Guk dugun afizioak jarraipena izatea oso polita litzateke. Gazteei informazioa, baliabideak eta teknologia berriak eskaintzea oso garrantzitsua iruditzen zaigun».

logia berriak eskaintzea oso garrantzitsua iruditzen zaigun».

MOTO ERAKUSTALDIA

Jose Luis Izagirre antolatzailearen esanetan, «Ferialekutik haratago eraman nahi genuen topaketa. Esfortzu handia egin behar izan dugu, baina merezi duela uste dugu». Gaur moto klasikoaren I. erakustaldiak zeharkatuko du herriko erdigunea, 16:30etik 18:30era. Bi eta lau denborako motoek hartuko dute parte, 30 eta 40 hamarkadetan egiten ziren erakustaldiak gogoratzen. Irteera eta helmuga San Frantziskon izango da. Erakustaldiak irauten duen bitartean erdiguneko kaleak itxita egongo dira.

GIZARTEA ▶

Festa egun handia gaur Ero-Etxe elkartearentzat

Betizu taldea Leidorren eskaintzekoa zen kontzertua ekainaren 12ra atzeratu egin da



Ero-Etxe elkarteak Inauterietan kaleratu zuen diskoaren aurkezpena, Kultur Etxean. OLALIA ESKITXABEL

L. MONTES

Ospakizun urtea da 2004a Ero-Etxe elkartearentzat. Izan ere, 25 urte betetzen ditu aurtien. Eta urteurrena behar bezala ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Inauterietan ekin zieten ospakizun ekitaldiei. *Tolosako txarangak Inauterietan* disko kaleratu zuten orduan, herriko hemeretzi txarangen doinuak jasotzen zuen bilduma. Urteurrena ospatzen jarraitzeko asmoa azaldu zuten orduan, eta orain iritsi da bigarren txanda. Elkartearen eguna ospatuko dute gaur Ero-Etxekoek.

Ero-Etxe elkartearen 25. urteurrena liburuaren aurkezpenarekin ekingo diete ekitaldiei. Urte hauetan guztietako argazkiak eta elkartean izandako aldaketak, bitxikeriak eta ekimenak jasotzen dituzte, besteak beste, liburuak. Hamaiketako, toka eta mus txapelketa eta afaria eta dantzaldia ere antolatu dituzte.

Baina Ero-Etxekoek ez dute ekitaldiak elkartekoentzat soilik izatea nahi, eta kalera irtingo dira. Eguerdian erraldoiek eta buruhandiek hartuko dituzte herriko txokoak.

BT Show-a, ekainaren 12an

Arratsalderako, bestalde, Betizu Show-a emanaldia antolatuz gero, gainera, haien artean. Talde berri hori izango da, hain zuzen ere, ekainaren 12an Tolosan kontzertua eskainiko duena.

EGITARUA ▶

- 10:45.** *Ero-Etxe elkareren 25. urteurrena* liburuaren aurkezpena.
- 11:00.** Hamaiketako bazkide guztientzat.
- 11:30.** Toka eta mus txapelketa. Irabazleentzat saria: gauean egingo den afaria harentzat eta lagun batentzat.
- 12:00.** Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharrea, Ero-Etxe elkartetik abiatuta.
- 21:00.** Afari berezia eta dantzaldia, elkartean. Afaltzen dauden bazkideen artean Euskal Herriko nekazalburisimo batean asteburu bat zozketatuko da, eta hainbat sorpresa.

kontzertua ekainaren 12an, larunbata, izango da, Leidorren.

Hainbat lagunek emanaldirako sarrerak erosi dituzte jada. Antolatzaileek adierazi dutenez, «sarrera horiek berdin-berdin balioko dute datoren emanaldirako ere. Beraz, lasai egon daitezke».

Betizu taldean aldaketak izango dira laster. Orain arte herriz herri aritu diren neska-mutilai talde berri batek hartuko die lekukoak. Ibartar bat dago, gainera, haien artean. Talde berri hori izango da, hain zuzen ere, ekainaren 12an Tolosan kontzertua eskainiko duena.

MUSIKARIA 2004 ▶



Giroarte dultzainari taldekoak, emanaldi batean, Leidorren. J. SAIZAR

Musikariak kolean ariko dira goizean

Herri Musika Tresnen Topaketa egingo dute gaur Giroarte taldeak antolatuta

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udal Musika Eskolak antolatu duen X. Musikaria astearen baitan, Herri Musika Tresnen Topaketa izango da gaur, goizetik eguerdira. Iñaki Salvadorrek zuzentzen duen Giroarte dultzaina taldeak hartu du topaketa prestatzeko ardura, eta Iparraldetik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako dultzainariak, albokalariek, trikitalariak, txistulariek eta txalapartariak hartuko dute parte.

Hain zuzen ere, Lutxanako (Bizkaia) eta Baionako dultzaineroak, Barakaldoko (Bizkaia) Betiko albokalaritza taldea, Anoetako eta Ibarra txalapartariak, Villabonako eta Anoetako trikitalariak, Tolosako Ozenki txistu taldea eta Tolosako Giroarte dultzaina taldea elkartuko dira topaketan. 10:00etan hasiko dira herriko kaleak doinuaz alaitzen, eta bazkalordua arte ariko dira horretan.

Antolatzaileek adierazitakoren arabera, talde bakoitzak bakarka jardungo du, eta musikari guztiak batera joko dituzte pieza batzuk baita ere. «Hamaiketakoaren aurretik bere kabuz ariko da taldeetako bakoitza, eta Alde Zaharreko tabernariak eskainitako jakiei esker sabela bete ondotik el-

EGITARRUA ▶

Herri Musika Tresnen Topaketaren baitan, kolean jardungo dute musikariak goizetik eguerdira.

10:00. Kalejira Alde Zaharretik zezen-plazaraino. Talde bakoitza kale ezberdin batetik joango da.

11:30. Hamaiketako Alde Zaharreko tabernariak eskainita.

12:00. Alde Zaharrean, kalejirak eta toki zehatz batzuetan, txalapartariak, dultzainariak, albokalariek eta trikitalariak elkartuko dira pieza batzuk elkarrekin jotzeko.

14:30. Bazkaria Emeterio Arrese kaleko zaharren egoitzan.

karrekin jardungo dugu musikari guztiak herriko gune ezberdinetan». Dultzainariak, albokalariek, trikitalariak eta txalapartariak izango dira elkarrekin ariko direnak.

Kalejirak emango dio hasiera topaketari, eta amaierarako bazkaria antolatu dute musikari guztiengat. Bazkalostean ere izango dute aukera haien festari doinua jartzeko.

AHT ▶

AHT-ren aurkako bilera izango da astelehenean

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarianak Abiadura Handiko Trenaren kontrako bilera egingo du astelehenean, hilak 31, eta bilkura horretan parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritar guztiak. Arratsaldeko zortzietan hasiko da batzarra Kultur Etxean, eta, besteak beste, udan zehar egingo dituzten ekimenen berri emango dutela iragarri dute elkarlaneko kideek.

DANTZA ▶

Aritz Iglesias, Aurreku Txapelketara

Aritz Iglesias tolosarrak parte hartuko du bihar Pasai Antxoko plazan izango den Euskadiko XXIV. Gipuzkoar erako Arresku Txapelketan. Alkartasuna dantza taldeak Pasaiako Udalarekin antolatzen duen txapelketan 11 dantzarik irtengo dute: tartean izango dira Aukeran dantza konpainiako Aiert Beobide eta Kukai dantza taldeko Jon Maya, besteak beste. Tolosako Udaberri eta Villabonako Oinkari dantza taldeetako kide da Iglesias. 17 urte ditu eta lehenengoz ariko da.

SANJOANAK ▶

Beotibarren eskopetero gisa ateratzeko bilera

San Joan jaiak gainean izango ditugu laster, eta herritar, talde eta elkarte asko hasiak dira jada herriko festa nagusietako ekimenak prestatzen. Bada Beotibar konpainiarekin eskopetero modura irteketan direnei ere deialdia luzatu diete konpainiako arduradunek. Izan ere, premiazko bilerara deitu dute. Astelehenean egingo dute, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxean.



Aritz Iglesias tolosarra. HITZA

HEZKUNTZA ▶

Hirukide festako bazkarirako txartelak salgai

Ikasturte amaiera dela-eta festa ari dira prestatzen Hirukidekoak; ekainaren 12an izango da Eskolapioetako ikastetxean. Jokoak, kirolak, tailerrak, ikuskizun gazte-luak, buruhandiak, txaranga, erakusketa, mus txapelketa... Askotariko ekintzak izango dira, eta baita bazkaria ere: txartelak hiru ikastetxeetako idazkaritzan dira dagoeneko salgai.

KULTURA ▶

Pintura erakusketa Txinpartan

Sanjoanetan urtero egiten duten moduan, pintura erakusketa antolatu dute aurten ere Txinparta elkartekoek. Iaz zezen-plazaren inguruko margoak aurkeztu behar izan zituzten parte-hartzaileek zezen-plazaren urteurrena zelako, baina aurten norberak aukeratu beharko du gaia. Pintura erakusketa horretan parte hartu nahi izatera izena eman behar da lehenik: ekainaren 2tik 4ra egin behar da, 19:30etik 20:30era, elkartean, eta koadroak ekainaren 21ean aurkeztu beharko dituzte partaideek 19:30etik 20:30era. Erakusketa ekainaren 23an, 18:30ean inauguratuko dute; ekainaren 27a bitarte izango da zabalik.

GIZARTEA ▶

Bartzelonara bidaiaria antolatu du Gazteria Batzordeak

Uztailaren 16tik 18ra izango da irteera, Forum Bartzelona ikustera joateko

I. ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Gazteria Departamentuak 18 urtetik gorako gazteei zuzendutako bidaiaria antolatu du Bartzelonara. Besteak beste, Forum-a ezagutzera izango da bidaiaren helburua. Bertara joan nahi duenak 90 euro ordaindu beharko ditu, eta antolatzaileek adierazi dutenez, ezinbestekoa izango da Aterpetxeko Txartela edukitzea. Txartela ez dutenek izango dute irteera eguna baino lehen hura eskuratzeko aukera. Tolosan, Antonio Maria Labaien kultur etxean atera baitaiteke: Gazte informazio bulegoan, hain zuzen ere.

Bartzelonara bidaiaria uztailaren 16tik 18rako asteburuan izango da: ostriralean irten, eta igandean itzuli, eta Bartzelonako irteeran dagoen aterpetxe batean hartuko dute izena ematen dutenek ostatu: Cabrer de Mar-eko Torre Ametller-en, alegia.

Izena emateko epea

Izena emateko epea ekainaren 2an, asteazkenean, zabalduko dute. Antolatzaileek esan dute «plaza mugatuak» izango direla, eta horregatik, izen-emate ordena errespetatuko da bidaira joan nahi dutenen artean. Kultur Etxera joan beharko dute horretarako interesa dutenek, asteazkenetik aurrera. Egutero eman ahal izango da izena plaza horiek beteta egon arte, astegunetan: goizez, 09:30etik 14:00etara eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.

ARAMBURU

Salgai (Eraso): Duplex-a salgai
Inurri, Etxean eta kalean.
Alkatzeko (Salgai): Bi inguru dituen apartamentua, igitokiarekin, inondantza gerta.
Alkatzeko (Tolosan): Denda berria egiteko inguru bikaina salgai.
Alkatzeko (Tolosan): Garaie Inurri kalean.
Alkatzeko (Tolosan): 145m²ko Salgaiak Larramendi kalean.
Alkatzeko (Eraso): Garaie Inurri kalean.
Alkatzeko (Eraso): Garaie Inurri kalean.
Alkatzeko (Eraso): Garaie Inurri kalean.
Alkatzeko (Eraso): Garaie Inurri kalean.

943 65 17 13 / 677 460 916

VILLABONA-AIZTONGO ▶ GIZARTEA

Udalekuetan izena emateko eta begirale izateko epea zabalik

Villabonako eta Zizurkilgo udalek eta Aiztondoko Mankomunitateak ireki dituzte izena emateko zerrendak

GARAZI AZKUE

Udan sartzeko hilabete besterik falta ez den honetan, oporretako urtegaraiaren zer egin pentsatzen hasi beharra dago. Hildo horretatik, herri askotako udalek hautatu dute haurrentzat udalekuen aukera. Udaleku hauen helburua, irteerak, jolasak eta bestelako jardueren bidez, haurrek oporretan ere euskaraz egitea da.

Villabona da herri horietako bat. Uztailaren 5etik 23ra izango dira udaleku irekiak; ekin-tza, lehenengo eskolaurretik LH-ko 4. maila bitarteko haurrei dago zuzenduta. Goizeko 9:30etik 13:00etara izango da. Izena emateko udaletxeko Euskara Zerbitzura joan beharko da, maiatzaren 31 bitarte dago horretarako epea.

30 euro ordaindu beharko dira aurrezki kutxetan: Kutxan, 2101 0072 78 00000681 22 zenbakian; eta Euskadiko Kutxan, 3035 0046 73 0460900005 zenbakian. Ondoren ordainagiria udaletxera eraman.

Aiztongo bailaran ere antolatuta dituzte udaleku irekiak, Larraul, Aduna eta Alkizako umeei zuzenduta. 1991 eta 99 urte bitartean jaiotako haurrentzat izango da. Ekainaren 21etik uztailaren 23ra arte, 9:30etik 13:30era. Izena emateko epea ekainaren 7an amaituko da.

Begirale hautaketa

Bestalde, udalekuetan lan egiteko begiraleak aukeratzeko deialdiak zabaldu dituzte udalek. Villabonan, gaur bertan amaituko da izena emateko epea, baldintzen artean, euskara ondo jakitea eta 18 urte beteri izatea daude.

Zizurkilgo ere izango dira udaleku irekiak, ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitarte. Begiraleak aukeratzeko deialdia egin dute, beraz. Zizurkilgo erroldatuta egon behar dute, 18 urte beteta eduki behar dituzte. Euskara ere ondo menperatu behar dute aurkezten direnek, eta azterketa teoriko-



Herri askotan izango dira udaleku irekiak. G. AZKUE

praktikoa egin beharko dute begirale izateko.

Horretaz gain, denbora libreko begirale eta zuzendari titulazioa izatea, heziketarekin zerkusua duten ikasketak egitea, esperientzia, edota langabetu edo ikaslea izatea baloratuko da. Izena emateko epea ekainaren 8an amaituko da. Azterketa ekainaren 11n, arratsaldeko 18:30ean izango da Atxulondon.

ANOETA ▶ HEZKUNTZA



Anoetako Ikastolako talde bat supermerkatua tailerlean. G. AZKUE

Kontsumo tailer mugikorra ikasleentzat

Anoetako Herri Ikastolako gaztetxoek nola eta zer kontsumitu ikasi dute aste honetan

G. AZKUE

Zer jan behar den, zer nolako elikadurak kontsumitu behar diren, zer eta nola erosi behar den... hori guztia eta gehiago ikasi dute aste honetan Anoetako Herri Ikastolako ikasleek. Kontsumo tailer mugikorra joan da Anoetara. LHko ikasleak izan dira ikasgai berezi hauetan.

Ikas unitate hauetako bat, supermerkatua da; tailer honetan, ikasleek, erosketekin zerkusua duten guztia ikusi zuten. Lehenik eta behin, eli-

kagai gurrupila azaldu zuen tailerreko arduradunak. Ondoren, ikasleek taldetan jarrita, menu orekatua prestatu zuten. Segidan, menu hori prestatzeko erosketan egin zituzten. Hala ere, arazoak izaten dira beti supermerkatuan, eta nola erreklamatu ere ikasi zuten gazteek.

Supermerkatuaz gain, etiketa tailerra eta segurtasun tailerra ere ikusi zituzten.

Irakasleen esanetan, «oso gustura» ibili dira ia aste gutxian zehar ikasleak tailer hauetan.

AIZTONGO ▶

Bilbora joateko autobusak antolatu dituzte

Larunbatean izango da Herriarren Zerrendak deitutako manifestazioa Bilbon. Hara joan nahi duen orok, autobusean joateko aukera izango du. Villabonatik aterako da bailarako biztanleentzat autobusa larunbatean. Izena emateko, 943 69 16 10 telefonora deitu beharko da. Autobusa, 16:00etan abiatuko da Olaederra kiroldegiarren ataritik, larunbatean bertan.

ANOETA ▶

Xake erakustaldia izango da bihar Anoetan

Bihar izango da, aurreko astean Iruran egin zuten moduan, xake erakustaldia Anoetan. 16:30etik 18:00etara arituko dira LH-tik aurrerako 40 ume inguru. Gaztetxoak, Anoetako Herri Ikastolan bilduko dira. Irurako saioa «arrakastatsua» izan zen bertako antolatzaileen esanetan. Erakustaldi honen baitan erabakiko dute hurrengo urterako tailerra eratu den edo ez.



Xake erakustaldia. O. ESKITXABEL

ASTEASU ▶

Takolo, Pirritx eta Porrotx bihar kiroldegian

Aiurri, Berri Aiztondoko hamabostekariak 10 urte bete ditu aurtan. Ospakizunekin jarraitzen dute, eta asteburu honetan haurrentzat saioa prestatu dute. Asteasu-ko kiroldegian eskainiko dute euren saioa Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek. 17:30ean elkartuko dira bailarako haurrak kiroldegian, *Poxpolin Mari Sorgin* ikusizuna ikusteko prest. Sarrera 5 eurokoa izango da.

ZIZURKIL ▶

Bihar izango da argentinarraren afaria Zimiteyuan

Pasa den asteburuan marokoar afaria prestatu zuten Maiatza Saltsanen baitan. Aste honetan argentinarraren txanda da. Argentinako espezialitateak dastatzeko aukera izango da: Matahambres, Panpa argentinarrereko txorizo krioiola, Enpanada Tucumanas, Churrasco Chimichurri eta tiramisua izango dira. Zimiteyuan izango da afaria, eta ondoren Tangoneon taldea.

Dia  **SUPERMERKATUA**
OKABIO taberna
 Industrialdea • LEITZA
 Tel.: 948 51 07 31

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ALEGIA ▶ HEZKUNTZA

Franconin Haur Eskola jartzeko «oztopoak»

Herriko apaizak, Joxi Eguzkitzak, Haur Eskola Franconin jartzeko ezezkoa eman du Franconiko fundaziokide bezala

OLAIA ESKITXABEL

Haur Eskolaren inguruko bilerak burutu zuten atzo kiroldegian zerbitzu hori martxan jartzeko interesa duten gurasoek.

Gurasoak biltzen hasi zirenetik, herrian leku bakar bat ikusten zuten Haur Eskola egokitzeke: Franconi Fundazioa. Udalak ere herrian zegoen leku libre bakarra Fundazioko gelak zirela azaldu zuen. Hori ikusita, Fundazioko kideengana jo zuten gurasoek. Horrela, herriko apaizaren, Joxi Eguzkitzaren, aurkako iritziarekin egin zuten topo: «Guk gure seme-alabentzat leku bat besterik ez genuen eskatzen eta ez genuen uste hainbeste oztipo aurkituko genituenik», azaldu zuten atzoko bileran gurasoek.

Eguzkitzak azken asteotan iritzia aldatzeko jarrera zuela antzeman zuten arren, azkenan, Haur Eskola Franconin egokitzeke ezetza luzatu du «Haur Eskola Fundazioaren betekizunetik kanpo geratzen dela argudiatuz», azaldu zuten guraso taldeko kideek. Horren aurrean, bestelako iritzia dute gurasoek: «Fundazioko estatuetan Franconiko eraikina helziketa helburuentzat bideratuko dela zehazten da», diote. Franconi fundazioaren betekizunak ez direla bete pentsatzen dute gurasoek eta, zentzu horretan, ahal diren neurriak hartuko dituztela zehaztu zuten atzoko bileran.

Argi utzi nahi izan zuten berriro ere beren nahia «Haur Eskolaren funtzionamendua mo-

jek Franconin duten zereginekin uztaitea» zela.

Aurrera begira

Haur Eskolarik ez da izango 2004-2005 ikasturtean, ondorioz, «alegiar asko kaltetuak suertatuko dira». Horren aurrean, herriko apaizari, emandako ezezkoa publikoki agertzea eta arrazoak zehaztea eskatu nahi diete gurasoek: «Eta guri ezezki, baita Franconin Haur Eskola jartzearen aldeko sinadurak eman zituzten norbanakoei eta herriko taldeei ere». Era berean, Udalari ere beharrezko neurriak hartzeko proposamena luzatu nahi die.

Hurrengo bilera ekainaren 3an izango da; kiroldegian 18:00etan bilduko dira.



Denboraldi amaierako jaia

ALEGIA ▶ Denboraldi amaierako afaria egin zuten Intxurre futbol taldeko jokalariek eta entrenatzaileek pasa den asteburuan. Lurraldekakoan, Mikel Oiarbide, jubeniletan, Jokin Agirre, kadeteetan, Imanol Jimenez, eta, infantiletan, Imanol Manterola sarituak izan ziren denboraldian jokalaria hoberenak izateagatik. Opari gisa, Garaialde Iturgintzak eskainitako erlojuak jaso zituzten. Denboraldia amaitu zutela pentsatzen zuten arren, asteburu honetan eta hurrengoan partidak izango dituzte kadeteek eta jubenilek. Jaitsei edo ez jaitsei partidak izango direnez, jendea animatzera joateko deia luzatu dute. HITZA



IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA

Seme-alaben heziketa egokiaren bidea azaldu zuten atzoko hitzaldian

Parte-hartze handia, Udalak eta Guraso Elkarteak antolatutako hitzaldian

O.ESKITXABEL

Gurasoei zuzendutako hitzaldia izan zen atzo kiroldegian. Guraso elkarteak eta Udalak antolatuta. *Guraso ona, guraso arduratsua, guraso eta kitto!* izenburupean gurasoek askotan seme-alabak ondo hezitzen ari direnaren inguruan beren buruei egiten dizkieten galderak erantzuten saiatu ziren Izar Arregi eta Miren Telleria adi-tuak.



Guraso ugari gerturatu ziren atzoko hitzaldia entzuterako. O.ESKITXABEL

Ohiko geldialdixoa Alegian

ALEGIA ▶ Ura, garagardoa, gaseosa, limoi eta laranja zatiak eskaintzen mahaiak jarri zituzten urtero bezala Intxurre elkarte kideek zubi inguruan. Urte asko daramatza elkarteak martxan parten hartzen duten mendizaleen azken kilometroak gozatzeko laguntzeko postua jarriz. Egin zuen beroa kontutan hartuta, litro ugari edan zituzten mendizaleek. Eskertzeko keinua elkarte kideena. HITZA

IRAGARKI LABURRAK ▶

Administrari laguntzailea. Plaza libreak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Hurrengo inkomporazioak: Zaratuz, Hernani, Beasain, Berrobi, Iruin, Erreterria, Bergara eta Oñati. Doako informazioa: 943 444509.
Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzan eta

udaletan. Hurrengo inkomporazioak: Hernani, Aretxabaleta. Doako informazioa: 943 444509.

Ezinduak. Zure ezintasuna %33tik gorakoa bada, aprobetxatu ezazu aukera. Lortu lanpostua udal eta Eusko Jaurlaritzan. Deituiguzuz. Doako informazioa: 943 444509.

Mantenerimendua. Lorazainak,

garbitzaileak, peoiak, lanpostu libreak: udaletan, Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Basozainak. 17 plazako eskaintza. Lan egin gustuko duzun horretan. Lortu lanpostua naturarekin bat eginez lan egin ahal izateko. Doako informazioa: 943 444509.

Gidariak. Plaza libreak udaletan,

Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Udaltzaintza. 43 plaza libre. Hurrengo inkomporazioak: Hondarribia, Hernani, Usurbil, Iruin, Arrasate, Beasain, Ordizia, Oñati, Azkoitia, Erreterria, Zumarraga. Doako informazioa: 943 444509.

Gizarte langilea. Hurrengo inkomporazioak: Beasain, Berrobi, Itsasondo, Altzaga. Udaletan eta Foru Aldundian. Doako informazioa: 943 444509.

Bigarren Hezkuntza. Haur Hezkuntza. Plaza libreak. Deituiguzuz eta lagunduko dizugu. Doako informazioa: 943 444509.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegietia. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asuntzio klinika: 67 57 99
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ Tolargi: 65 00 16
 ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 ▶ DYA: 67 25 36
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Etxebeste J.M. Gernikako
 arbola 3 (Tolosa). 65 10 40.
 Gimeno A. Elbarren 52, (Leitza).

TOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoeta. 687 41 00 22
 anoeta@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitza. 687 41 01 18.
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Altzariak. Gela eta salako
 altzariak salgai. Oso egoera
 onean. Tel: 626 84 76 26.

ALOKAIRUAN

Taberna. Oresako taberna
 alokatzen da. Tel: 943 68 20 29.
Zelaia. Negutegiatarako 2
 hektareako zelaia alokatzen da.
 Egurdiaren deitu. Telefonoa: 943
 65 00 81.

IZASKUN ▶ JAIK

Zikiro jatea, segalariak eta erromeria izango dira bihar jaiak hasteko

Sega txikiko txapelketa berezia jokatu da bihar auzoko belazeetan; etzi bertsolariak eta dantzariak izango dira



Alurr dantza taldeko gaztebakekoen saioko une bati, iazko Izaskungo jaietan. IRATXE ETXEBESTE

DANI GIBELALDE

Maiatzeko larunbat arratsaldeetan, ohi bezala, erromeriak izan dira Izaskunen. Gaurko erromeriak hasiera emango dio bihar eta etzi egingo diren Izaskun auzoko jaietako ekitaldi nagusiei.

Mendian, Belabietatik barna ibili eta hamaiketako egin ondoren, ekitaldi aipagarri bat egingo dute bihar Izaskungo belazeetan. Aurreko urteetan bezala, sega txapelketa jokatu da, baina aurtengoa berezia izango da.

Goiherriko Almitza Elkarteak sega txikiko hiru txapelketa antolatu ditu, eta Legorretakoaren ondoren, bihar Izaskunen jokatu dena izango da bigarrena. Partaideek erabiliko dituzten segak 90 zentimetroko luzera izan behar du gehienez altzairuzko xaflaren gainaldea. Soilik 30 urte azpiko federatua gabekoek parte hartu ahal izango dute gizonezkoetan. Emakumezkoetan, edonor lehiatu ahal izango da. Gizonezkoek 100 metro kuadroko saila ebakiko dute eta emakumezkoek 50ekoa. Mozitutako kiloak baino, «belarra ondo eta azkar ebakitzea» aintzat hartuko dute epaileek ebalutzerakoan. Hamaika bat lehiakide espero dituzte antolatzaileek, eta denentzat izango dira sariak.

EGITARAUA ▶

GAUR

19:00. Erromeria.

BIHAR

09:00. Belabietara mendi irteera plazatik.
11:00. Hamaiketako Izaskunen.
12:30. Sega txikien txapelketa jokatuko dute.
14:30. Zikiro jatea.
17:30. Izaskungo III. Toka Txapelketa
19:00. Erromeria izango da auzoan zehar.

«Gazteak segan aritzera bultzatzea» dute helburu antolatzailerik, «herri kirolak, gutxienez, ez galtzeko».

Lehen aldiz, proba egiteko antolatu dute txapelketa hori. «Sega txikiarekin aritzen da jende gehiena nazioarteko txapelketetan. Euskal Herrikoetan erabiltzen direnak baino erabiltzerazagoak dira sega horiek, segan ikasteko errazagoak, eta erosteko ere eskuragarriagoak. Esperientzia beharrik gabe, edonor segan trebatzen hasteko egokiak dira».

Emakumezkoetan, askoren iritzi egungo Euskal Herriko segalari onena den Izaskun

ETZI

10:00. Trikitilarien eskutik diana.
11:00. Meza.
12:00. Hamaiketako herrikoia.
13:00. Bertso saioa Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.
17:30. Alur dantza taldearen emanaldia.
18:30. Bertso saioa Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.
19:00. Haurrentzat goxokiak. Ondoren, erromeria 20:30ak arte

Larrarte ibartarrak parte hartzea espero da, besteak beste.

Bestalde, biharkoan zikiro jatea, toka txapelketa eta erromeria izango dira.

Igandean, bertsolariak eta Alurr dantza taldekoen ikusizunak dira azpimarratzekoak. Alurr-eko lau taldeek 13 dantza eskainiko dituzte. Ikasturte erdian (duela lau zapabost hilabete) mutil batzuk sartu ziren taldean, eta *Agurra* eta *Fandango* koreografiak dantzatu zituzte horiek.

Besteak beste, *ikurrin dantza*, *Peio Joxepe*, *Axuri beltza*, *Uztai txiki*, *Ipurdi dantza*, *Kaxkarot*... dantzatu zituzte.

BERASTEGI ▶

Gaixo eta adinekoen eguna egingo dute gaur

Gaixo eta adinekoen eguna egingo dute berastegiaren gaurkoan. 19:30ean elizkizuna izango da gaixo eta adinekoen alde otoi egiteko, eta untzio sakramentua banatuko da. 20:30ean, berriz, afaltzeko elkartuko dira Kako jate txean.

ELDUAIN ▶

Biharko 60 urtetik gorakoentzat jai antolatu dute

Parrokiak 60 urte gorakoentzat jai ederra antolatu du biharko. 12:00etan meza nagusia izango da adinekoentzat eta gaixoentzat bizi poza eskaintzeko. Untzio sakramentua banatuko dute bertan. Ondoren, 13:30ean, bazkaria izango da herriko elkartearen.

TXARAMA ▶

Pailazoak, talo jana eta sagardo dastaketa gaur

Atzo hasi ziren Txaramako jaiak gazte afaria eta suzuri jaurtiketarekin. Gaur goizean, tortila patata lehiaketa izango da. Arratsaldean, Kiki eta Moko pailazoaren emanaldia egingo da. Eguraldi ona eginez gero, plazan eskainiko dute saioa, bestela Kultur Etxean. Ondoren, talo jana eta sagardo dastaketa izango da. Otazu, Eguzkitza eta Isastegi sagardogileen laguntzarekin. Gauean, trikitixa eta Djak izango dira. Bihar, toka txapelketa, bazkaria eta helduen jolasak izango dira.

IBARRA ▶

Ikastolako Egunerako txartelak salgai

Uzturpe ikastolak ohiko duen bezala, aurten ere Ikastolaren Eguna egingo du ekainaren 5ean. Eguerdiko bazkaria Belabietako kiroldegian izango da, eta txartelak salgai dira dagoeneko ondoko tokietan: Zubiaurre, Erre Berri, eta Errotatxo okindegian. Ekainak 2, asteazkena, izango da azken eguna txartelak eskuratzeko. Bazkaria trikitilarietako alaituko dute.

ARESO ▶ HEZKUNTZA



Aresoko eskolako umeak abiatzeko prest. JAIONE ASTIBIA

Eskolatik Sakanara antzeztera

Beraiek prestatu dituzten bi obrak, orain kanpoan erakutsi eginen dituzte

JAIONE ASTIBIA

Atzo Aresoko eskolako ikasleak Sakanara joan ziren antzerkia egitera, zehazki Urdaieko eskolara eta herri hartako ikaskideei ez ezik, Iturmendikoei ere erakutsi zizkieten obrak. OHOKo 2. mailatik hasi eta 6. erainoko 14 neska-mutiko joan ziren, beraien bi tutorekin. Txikienak eskolan geratu ziren, hurrengo urtean beraien tamainako aukera egokituko zaien itxaropenarekin.

Obrak aipatu dira, izan ere bi lan prestatu baitituzte, *Printza puzkertia* antzerkia eta *Txistu eta danbolin* txotxongiloa. Biak ala biak *Piraten altxorra* bildumatik aukeratu zituzten eskolan ikasleekin esperimintazio saiakera egiteko, alegia antzerkia gustoko zuten edo ikusteko. Eta baita gustatu ere.

Gustuko lekuan...

Obren egokitzapenez Maite eta Lurdes irakasleak arduratu dira, beraiek sortu dituzte gi-

doiak eta eszenatokiaren dekorazioaren ideiak ere. Baina lanerako orduan ikasleek ere parte hartu dute, nahiz dekoraturako tresnak lortzeaz, nahiz hauek egokitzeaz eta prestatzeaz... Beraz guztia bertan egindakoa da, hasi gidoitik eta dekoratuaren azken zatiraino: lan horiek esaterako, eskulana netako orduan egin omen dituzte eta entseguak berriz, asotean behin. Eguna hurbildu ahala, egin behar horretan maizago aritu badira ere.

Irakasleen esanetan gainera «umeak beren kabuz ardurak hartuz joan dira. Azkenik gero- nek egin behar genuen kontaktariaren papera ere, beren gain hartu baitute. Eta horrek asko poztu gintuen».

Froga moduan hasi zen ekin-tza bat, erakusgai dute orain. Lehendabizi gainerako ikasle- ei erakutsi zieten, gero guraso- ei eta herriko jendeari. Harrera ezin hobea izan omen zuten, atzo herritik kanpora atera zi- ren eta ikaragarri gustura joan ziren aktore txikiak.

LEITZA ▶

Igandean enkartelada plazan

Igandean, maiatzak 30, eguerdiko 12:30ean enkar- telada burutuko da herriko plazan, UPN, EA: *herritar- ren hitza errespetatu - Apartheid politikorik ez!* le- mak aldarrikatuz. Hain zu- zen ere duela urte bete, «2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeetan izan zi- ren ilegalizazioen ondorioz sortutako egoera atzera botatzeko eskatzeko eta bereziki herrian bertan, herritar multzo handi ba- tek jasaten duen bazterke- ta salatze» burutuko da ekitaldi hori. Oharrean adierazten dutenez «izan ere lehendabiziko eta bigar- ren mailako herritarrak baitaude gure herrian, be- ren hitza eta erabakia errespetatzen ez den he- lnean».

LEITZA ▶

Igerilekuko tabernaren kudeaketa

Udalak jakitera eman due- nez, herriko igerilekuko ta- berna kudeatzeko deialdia egin du. Eskaintzak udale- txeko bulegoetara bideratu behar omen dira ekainaren 15a baino lehen, hori ku- deatzeko eskaera, herriko edozein talde edo norba- nakok egin dezakeelarik. Kudeaketa suertatzen zaio- nak euro bateko kanona ordaindu beharko omen du alokera horren truke eta beti ere baldintza batzuk bete behar lituzkeela kon- tuan hartuz: taberna egu- nero garbitzea eta igerile- kuaren ordutegi bera izate- a, esate baterako. Alope- raren iraupena ekainaren 21etik irailaren 5a bitarte- koa izanen da. Argitu dute- nez, tabernaln irabaziko li- tzatekeen dirua, kudeatzai- leak berak geldituko omen luke. Bestalde, igerilekuko tabernaren kudeaketarako eskaria talde edo lagun ba- tek baino gehiagok aurkez- tuko balute, zozketaz era- bakiko omen litzateke nori eman.

LEITZA ▶ KULTURA

Txinatik hasi eta bertako artisauetarainoko bidia

XXIV. Eskulangileen Azoka burutuko da bihar plazan Kultur Asteari bukaera emateko

J. ASTIBIA

Bihar goizeko 11:00etatik au- rrera eta egun guztian zehar, herriko plazan Euskal Herri osotik nahiz kanpotik etorritako eskulangileek edo arti- sauek egindako lanak ikusteko eta, nahi izanez gero erosteko, aukera ere izanen da eta zer esanik ez lana nola egiten du- ten begiratzeko eta ikasteko ere. Hogeita hamabost bat es- kulangile etorriko dira eta au- rten ere, lanbide hagitz desber- dinetakoak, larrua, beira, zura, egurra, panpinak, ehunak... langintza oso desberdinekoak denak, baina denak tresna gu- txi batzuekin beren eskuen in- darrez eta abileziak baliatzen direnak. Herriko trikitilari gazte- en doinuez alaituta, gosetuz gero, taloak dastatzeko aukera ere izanen da, bide batez anto- laketa gastuen ordainketan la- gunduz.

Dena den gaur arratsaldean hasi eta bakoitzak nahi duen

arte, pesta ikusteko aukera ere izanen da. hain zuzen ere Ba- sauriko nahiz Leitzako dantzari- rik *Ingurutxo* eskainiko bai- tute plazan, lehengo eta orain- go erara, eta ondoren herri afaria burutuko da Karrapean, perkusio taldearen hotsak adi- tzeko bidea izanen delarik gero.


Txinako harriesietan

Bestalde ostegun iluntzean Txinaraino joateko aukera izan zuten zineman bildu zirenek. Herrialde hartan dauden para- je, kultura, bizimodu... hain desberdinen berri jaso zuten Jon Abril eta Asier Gogortza- ren eskutik. Ustez herrialde bakarra izan arren, bistan gel- ditu zen han ere elkarrekiko hagitz desberdinak diren herri- riak badirela, bakoitza bere nortasunaren, bere kulturaren, bere izaeraren jabe izanik, esa- terako munduan bakarra den *Mosuen* matriarkatua.



Urte osoko lanak erakusgai

LEITZA ▶ Jubilatuenen elkartzan dira, baina denak ez dira hala. Emakumeak ageri dira irudian, baina ez dira eskulanetan aritzen diren bakarrak. Astean hirutan biltzen dira, negu partean eta laboreak gustuko dituen edozein joan daiteke bertara. Mota guztietako lanak egiten dituzte eta bakoitzean gehien dakienak erakusten die gainerakoiei «ezagutzaren trukaketa da, ez dago maisu maistrarik». Bakoitza bere martxan doa. JAIONE ASTIBIA



TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *leitor Zinemaren* astebukaera honetan 'LA MALA EDUCACION' filma ikusteko bi sarreren irabazlea: AINHOA ALTUNA (AMEZKETA)

AGENDA ▶

DANTZA

Leitza. *Inguruboa*, 17:00etan. Basauriko eta Leitzako dantzarien eskutik. Kultur Astearen baitan.

DEIALDIAK

Asteasu. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak. 17:30ean, kiroldegian. *Aiurri*-ren 10. urteurrena dela-eta. Antolatzailea.

Anoeta. Xakean jokatzeko aukera gazteentzat. 16:30etik 18:30era, ikastolan. Ondoren, merienda.

Ibarra. Bihar, zikiro-jatea izango da Izaskunen. Prezioa helduentzat 15, eta haurrentzat 7 eurokoa da. Txartelak salgai dira Atari, Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Izaskun taberna eta Izaskun jatebean.

Ibarra. Altxorraren bila jolasa herrian zehar. Hitzordua,

17:00etan, plazan. Ondoren, txokolatada gutzientzat. Txiribitu taldeak antolatuta.

Leitza. Gazte-aparia Karrapean. Ondoren, Mulanbo perkusio taldea.

Tolosa. Samaniego ikastetxearen ikasturte bukaerako jaia: ikasle guztien emanaldia, gaztelu puzgarriak, jokuak, bazkaria, kirolak, musika, txokolatada... Uzturpe kiroldegian.

Tolosa. Ibilgailu Klaskoen X. Azoka. 09:00etatik 20:00etara, Ferialekuan. 16:30ean hasita, moto erakustaldia erdigunean.

Tolosa. Txirritaren omenaldia. Bihar, 12:00etan, Uzturren.

Tolosa. 25. urtemuga ospatzeko, Ero-Etxe elkartearen eguna: elkarteari buruzko liburuaren aurkezpena, ondoren hamaiketako, toka eta mus txapelketak, erraldoiak eta buruhandiak, afaria eta dantzaldia...

Tolosa. II. Roberto Jauregiren oroimenezkoa. Hegats igeriketa txapelketa. 16:30ean hasita, Igarondo igerilekuan.

Zizurkil. Afari argentinarra, Zizurkil goiko Zimiteyuan. Ondoren, Tangoneon taldeak tango eta folklore argentinarren kontzertua eskainiko du. Maiatza Saltsaren baitan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalez anoetarren margoak aurkitzen dira ikusgai Jubilatua Elkarteak; oleoak eta akrilikoak dira.

Tolosa. Uztailak 3a bitarte ikusgai dira Aranburun Faustino Aranzabalen margolanak.

Tolosa. Javier Soto ordiziarra eta Jesus Lopezu Zulueta beasaindarraren margolanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Maribi Iparragirrek bere

artelanak ditu ikusgai Saikin tabernan.

Tolosa. Anjel Cuerdo bidaiari eta abenturazale tolosarraren argazkiak ikusgai dira Aranburun ekainaren 12a bitarte.

Zizurkil. Sükrü Karakus margolari turkiararen erakusketa, Abulondo kultur etxean. Gaur da azken eguna.

TOLOSA KUP

GAUR ▶

- ▶ 13:00: Juvenil/Izarpe.
- ▶ 13:45: Hawai/Amaroz Bue.
- ▶ 14:30: Egunkaria/Pl. Nueva.
- ▶ 15:15: Enara/Amaroz.
- ▶ 16:00: Lekukik/Recre juega.
- ▶ 16:45: Kupelzaleak/Txiki tab.
- ▶ 17:30: Wasper/Gorro Team.
- ▶ 18:15: Lauetan Pix/Itzuli 2.
- ▶ 19:00: Egoki/Bonbero.
- ▶ 19:45: Lokimotiv/I.Falkon.
- ▶ 20:30: Begi Gorri/Popesku.

▶ 21:15: Bikutz/Super Pang. (Ilarremendi kiroldegian).

BIHAR ▶

- ▶ 14:30: Maskor/Mattin Gaizto.
- ▶ 15:15: Errekalde/Yogurines.
- ▶ 16:00: Neskak/Eguzki.
- ▶ 16:45: Kafe Iruña/Orbela.
- ▶ 17:30: Astesuarra/T.apalantz.
- ▶ 18:15: Ieltxu/A ke no 10.
- ▶ 19:00: Kupela/Kontra kien j.
- ▶ 19:45: Garikoitz/Magrebi.
- ▶ 20:30: Maradonas/Azkar. (Uzturpe kiroldegian).

MUSIKA

Tolosa. Herri soinu tresnen topaketa. Goiz osoan, kalean zehar. X. Musikariaren baitan.

ZINEMA

Tolosa. Pedro Almodovarren *La mala educacion*. 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Alesander Artola Cabanillas. Gaur 6 urte. Zorionak Ibarroko aitonen partetik.



URTE ASKOAN

Maite Iturrarte (Leitza). Besarkada bat bere familiarren partetik.



ZORIONAK

Bihar bi elbi hauek Lehenengo Jaunartzea dute. Ondo-ondo igaro dezazuela! Amorrain baten partetik.



URTE ASKOAN

Miri, dantzan eingo al deit?



ZORIONAK

Francisco Lopetegi eta Maria Arregi (Berastegi). Maite eta Martin biloben partetik.

HITZA,

zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

KIMETZ



GAZTE ARROPA

Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 67 38 62

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean KIMETZ ARROPA DENDAK oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu. EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!